TOLOSAKO
UDALA

*Aurretiazko kontsulta publikoa*

**PROPOSAMENA, URBANIZAZIO, ERAIKUNTZA, ETA INGURUMENA, PAISAIA ETA NATURA BABESTEKO UDAL ORDENANTZEN IV. TITULU (OSTALARITZA ETA JOLAS JARDUERAK BAIMENTZEA ETA EZARTZEA ARAUTZEKO BALDINTZAK) BERRIARENA**

**Aurrekariak**

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearenak, VI. Tituluan arautzen ditu administrazio publikoen legegintza ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala.

Honela, lege horren 133. artikuluan xedatutakoaren arabera, araudi proiektu bat prestatu aurretik, kontsulta publikoa egin behar da. Honako hau dio artikulu horrek:

*«133. artikulua. Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea.*

*1. Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:*

- a) *Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
- b) *Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.*
- c) *Arauaren helburuak.*
- d) *Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak (...)».*

*Consulta pública previa*

**PROPUESTA DEL NUEVO TÍTULO IV (CONDICIONES REGULADORAS DE LA AUTORIZACIÓN E IMPLANTACIÓN DE ACTIVIDADES HOSTELERAS Y RECREATIVAS) DE LAS ORDENANZAS MUNICIPALES DE URBANIZACIÓN, EDIFICACIÓN Y PROTECCIÓN AMBIENTAL, PAISAJÍSTICA Y NATURALÍSTICA**

**Antecedentes**

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, regula en su Título VI la iniciativa legislativa y la potestad reglamentaria de las Administraciones Públicas.

Así, el artículo 133 de la citada ley establece que, con carácter previo a la elaboración de un proyecto normativo, debe realizarse una consulta pública. Dicho artículo dice lo siguiente:

*«Artículo 133. Participación de los ciudadanos en el procedimiento de elaboración de normas con rango de Ley y reglamentos.*
*1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:*

- a) *Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.*
- b) *La necesidad y oportunidad de su aprobación.*
- c) *Los objetivos de la norma.*
- d) *Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias (...)».*

| | |
|---|---|
| Tolosako Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, eta Ingurumen Sailak proposatu du, beharra dago eta, eguneratzea Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Paisaia eta Natura babesteko Udal Ordenantzen laugarren titulua (ostalaritza eta jolas jarduerak baimentzea eta ezartzea arautzeko baldintzak). | El Área de Urbanismo, Obras y Servicios, y Medioambiente del Ayuntamiento de Tolosa, plantea la necesidad de actualizar el título cuarto (condiciones reguladoras de la autorización e implantación de actividades hosteleras y recreativas) de las Ordenanzas municipales de urbanización, edificación y protección ambiental, paisajística y naturalística. |
| Legeak ezarritako prozedura betetzeko, aurretiazko kontsulta publikoa egingo dute ordenantza onartu baino lehen. | Para el cumplimiento del procedimiento establecido por la ley, se realizará una consulta pública previa a la aprobación de la ordenanza. |
| Herritarrek, erakundeek eta elkarteek hala iritziz gero, parte hartu ahal izango dute eta ekarpenak egin, bi bide hauetako edozein erabilita:<br>• Helbide elektroniko honetara bidalita: hirigintza@tolosa.eus<br>• Udalaren Erregistroan aurkeztuta, aurrez aurre zein telematikoki (Plaza Zaharra 6-A, Tolosa). | La ciudadanía, instituciones y asociaciones podrán participar y realizar aportaciones a través de cualquiera de estas dos vías:<br>• Por e-mail a la siguiente dirección: hirigitza@tolosa.eus<br>• En el Registro del Ayuntamiento, tanto presencial como telemáticamente (Plaza Zaharra 6-A, Tolosa). |
| Horretarako, 15 lanegun izango dituzte, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. | A tal efecto, dispondrán de 15 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio. |
| **Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.** | **Problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.** |
| Ostalaritza eta jolas jarduerak baimentzea eta ezartzea arautzeko baldintzak berrituta, besteak beste, honako hau lortu nahi da: | Con la renovación de las condiciones reguladoras de la autorización e implantación de actividades hosteleras y recreativas, entre otros, se pretende: |
| • Edukia eguneratzea arlo horretan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera, indarrean dagoen hirigintza-plangintza barne.<br>• Gaur egungo taldeak parekatzea Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 | • Actualizar su contenido de conformidad con lo establecido en las disposiciones legales vigentes en la materia, incluido el planeamiento urbanístico vigente.<br>• Equiparar los grupos actuales a la clasificación grupal del Decreto 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y |

TOLOSAKO
UDALA

Dekretuko talde-sailkapenera.

- Betetzea *«Tolosako Ostalaritza Sektorearen analisia eta bere lehiakortasuna sendotzeko Ekintza Plana»* deituriko dokumentuan aurreikusitako eskaerak.
- Epe bat ezartzea jarduera-baimenen erregularizaziorako.
- Arautzea jardueren arteko distantziak.
- Aztertzea Tolosako HAPOk ezarritako esparruetan onartutako taldeak zeintzuk diren.
- Jartzea lokalen eta establezimenduen handitzeak erregulatzeko baldintzak, baldintza tekniko berriak barne.

**Arau hau onestea beharrezko eta egoki den**

Aintzat harturik aurreko atalean adierazitako helburuak eta udalek duten ahala herritarren bizi-kalitatearen hobekuntza dakarten jarduerak garatzeko, Tolosako Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, eta Ingurumen Sailak beharrezkotzat ikusten du lehen aipatutako IV. tituluaren egokitzapena zein eguneratzea sustatzea eta bultzatzea.

**Ordenantzaren helburuak**

IV. titulu berriaren aurreikuspenen helburua da ostalaritzako jarduerak eta establezimenduak, jolas- eta joko-izaerakoak, instalatzeko, irekitzeko eta funtzionatzeko baldintzak zehaztea eta arautzea, batik bat, arlo horretan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoaren arabera, indarrean dagoen hirigintza-plangintza barne.

actividades recreativas.

- Cumplimentar las solicitudes previstas en el documento denominado «*Análisis del Sector Hostelero de Tolosa y Plan de Acción para la consolidación de su competitividad».*
- Establecer un plazo para la regularización de las licencias de actividad.
- Regulas las distancias entre actividades.
- Analizar los grupos admitidos en los ámbitos establecidos por el PGOU de Tolosa.
- Establecer las condiciones reguladoras de las ampliaciones de locales y establecimientos, incluidas las nuevas condiciones técnicas.

**Necesidad y oportunidad de su aprobación**

Teniendo en cuenta los objetivos señalados en el apartado anterior y la capacidad de los municipios para desarrollar actividades que redunden en una mejora de la calidad de vida de la ciudadanía, el Área de Urbanismo, Obras y Servicios, y Medioambiente del Ayuntamiento de Tolosa considera necesario promover e impulsar la adecuación y la actualización del título IV antes mencionado.

**Objetivos de la ordenanza**

El objetivo de las previsiones del nuevo título IV sería el de determinar y regular las condiciones de instalación, apertura y funcionamiento de actividades y establecimientos de hostelería, sobre todo de carácter recreativo y de juego, de conformidad con lo establecido en las disposiciones legales vigentes en la materia, incluido el planeamiento urbanístico vigente.

| | | |
|---|---|---|
| Azken batean, ordenantza arautzaileak tresna eraginkorra izan nahi du herritarrek ostalaritza-, jolas- eta aisialdi-jardueren arloan dituzten premiei eta eskariei erantzuteko, eta jarduera horiek herritarren atsedena eta ongizatea bermatzeko moduan ezartzeko tresna eraginkorra ere bai. | | En definitiva, la modificación de la ordenanza reguladora pretende ser un instrumento eficaz para dar respuesta a las necesidades y demandas de la ciudadanía en materia de actividades hosteleras, recreativas y de ocio, así como para la implantación de esas actividades en condiciones que garanticen el descanso y el bienestar de la ciudadanía. |
| Ondorioz, lortu nahi da ostalaritza-, jolas- eta aisialdi-jarduerei lotutako lokalak eta establezimenduak aurretiaz aipatutako helburuak lortzea bermatzen duten baldintzetara egokitzea; ondorioz eta behar bezala arrazoituta, bete beharko dituzte, besteak beste, zarata, usain eta era guztietako eragozpenei lotutako eraginak ezabatzeko edo/eta murrizteko behar diren neurriak. | | En consecuencia, se quiere lograr que los locales y establecimientos vinculados a las actividades hosteleras, recreativas y de ocio se habiliten en condiciones que garanticen la consecución de los objetivos antes mencionados, con la consiguiente y razonada cumplimentación de las medidas necesarias para eliminar y/o minimizar, entre otros, los impactos asociados a ruidos, olores y todo tipo de molestias. |